

**PLATAFORMA DEL CASCO MEDIEVAL PARA LA CONCILIACIÓN DEL OCIO Y EL DESCANSO VECINAL / ERDI AROKO HIRIGUNEKO PLATAFORMA, AISIALDIA ETA BIZILAGUNEN ATSEDENA BATERAGARRI EGITEKO.**

**PREÁMBULO**

La “*Plataforma del Casco Medieval para la Conciliación del Ocio y el Descanso Vecinal*” / “*Erdi Aroko Hiriguneko Plataforma, Aisialdia eta Bizilagunen Atsedena Bateragarri Egiteko*” (en adelante “Plataforma del Casco Medieval”) es un colectivo ciudadano creado por iniciativa de las distintas asociaciones vecinales que actúan en el Casco Medieval de Vitoria-Gasteiz, y su objetivo es elevar al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz reflexiones y propuestas consensuadas por colectivos diversos que residen o desarrollan su actividad en el Casco Medieval.

La primera reunión de la Plataforma tuvo lugar el 22 de febrero de 2016, y desde entonces se ha reunido en cuatro ocasiones, la última de tales sesiones tuvo lugar el 16 de mayo de 2016, con el siguiente resultado.

**RESUMEN DE LAS DELIBERACIONES**

- La reunión comienza con la demostración, por parte de una empresa de ingeniería vinculada a la UPV/EHU, del funcionamiento de un dispositivo que ellos han diseñado, y que aúna las características de un sonómetro con las de un dispositivo de advertencia cuando se supera un determinado umbral de ruido ambiental. Ofrece información sobre el nivel de ruido existente por medio de colores, a modo de un semáforo, y puede advertir mediante mensajes de luz y de voz cuando se supera el umbral preestablecido. La presentación se produce a iniciativa de la propia empresa, que ha tenido conocimiento de la actividad de esta plataforma a través de internet. Se plantea la posibilidad de realizar una experiencia piloto con este dispositivo, pero se coincide en que dicha experiencia debería ir enmarcada en una campaña de mayor alcance.
- Se retoma la cuestión referida a los sonómetros, y la necesidad de contar con datos referidos al ruido principalmente ligado al ocio que se genera en el casco medieval. Por parte del personal técnico municipal se alude al elevado coste del sistema y a que la problemática es conocida. Sin embargo, otros miembros ponen de manifiesto, en primer lugar, que los datos que se recaban para la elaboración del mapa del ruido suelen referirse principalmente al ruido originado por el tráfico y otras actividades, pero no por el ocio, por la aglomeración de gente, etc. En este sentido, los puntos de toma de datos no son los mismos, y podrían ir cambiándose de forma itinerante. Si carecemos de datos sobre estas fuentes de ruido, no será posible evaluar la evolución del problema en el futuro, más allá de la percepción subjetiva. Por eso, la plataforma reitera la necesidad de contar con sonómetros que midan en particular el ruido generado por el ocio nocturno y diurno, así como por otras actividades aledañas (limpieza viaria, etc.), en concreto en diversos puntos conflictivos del casco medieval.

- Asimismo, se alude a la existencia del Plan para la Mejora del Ambiente Sonoro en el Municipio de Vitoria-Gasteiz (2.014-2.018). Dicho plan se basaba en los diversos análisis de afección acústica en el municipio de Vitoria-Gasteiz que se habían realizado desde 1998, y aunque se centraba principalmente en ruido originado por el tráfico viario, ferroviario y aeroportuario, así como por las actividades industriales, tenía en cuenta también el ruido originado por las actividades de ocio nocturno, y proponía una Línea 3 con actuaciones de mejora orientadas al ocio nocturno.
- Se constata que, durante los últimos años, y al menos en lo que respecta a esta línea de actuación, el plan no ha sido desarrollado, ni se han ejecutado las actuaciones, ni se han evaluado los indicadores.
- Respecto a las actuaciones a promover desde la Plataforma, tras barajar en la anterior sesión la realización de una campaña que partiera de la propia plataforma, se considera más adecuado llevar a cabo un proyecto más amplio y ambicioso, que aglutine a todas las partes en este asunto, tanto a vecinos, hosteleros, comerciantes, etc., como al propio Ayuntamiento e incluso instancias superiores, como Gobierno Vasco, ya que la problemática es común a las capitales de la CAPV y a otros muchos municipios. El objetivo sería trabajar en un proyecto compartido tanto por las instituciones como por la ciudadanía, en el que participen todos los colectivos afectados (vecinos, hosteleros, comerciantes, policía local,...). Se acuerda dar pasos en esa dirección.
- Cualquier iniciativa pública o privada requiere necesariamente de financiación. En este sentido, se confirma que en el presupuesto para 2016 no existe ninguna partida presupuestaria que tenga por objeto la sensibilización en materia de ruido y molestias por actividades de ocio nocturno. La plataforma considera imprescindible, para poder avanzar, que el Ayuntamiento cuente con una partida destinada a tal fin.

## **CONCLUSIONES**

1.- La “Plataforma del Casco Medieval/Erdi Aroko Hiriguneko Plataforma” solicita al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz que retome el “Plan para la Mejora del Ambiente Sonoro en el Municipio de Vitoria-Gasteiz (2.014-2.018)”, con el fin de desarrollar sus indicaciones en relación con el ruido generado por el ocio nocturno, plantear nuevas actuaciones, y llevarlas a término, así como definir los indicadores de seguimiento que se estimen adecuados con el fin de que en futuros ejercicios se puedan evaluar los resultados obtenidos. Para ello, consideramos imprescindible la implantación de una red de sonómetros que nos aporte información sobre el alcance, distribución espacial, distribución horaria, etc., de los ruidos y vibraciones originados en concreto por las actividades de ocio en el espacio público del Casco Medieval.

2.- Que se habilite una partida presupuestaria suficiente para poder llevar a cabo campañas de sensibilización social en materia de ruido ambiental derivado del ocio nocturno en colaboración con los distintos colectivos y agentes sociales involucrados.

En la presente sesión intervinieron 18 personas, representantes de las siguientes organizaciones y entidades:

- Representantes del sector del comercio (“Gasteiz On”, “Tribal Area”, empresa de diseño gráfico)
- Representantes del sector de la hostelería
- Representantes vecinales (AA.VV. Gasteiz Txiki, CC.PP. Las Escuelas 2-4).
- Asociación Gaia
- Educadores de calle
- Departamento de Medio Ambiente
- Policía Local
- Oficina del Síndico

**ERDI AROKO HIRIGUNEKO PLATAFORMA, AISIALDIA ETA BIZILAGUNEN ATSEDENA BATERAGARRI EGITEKO / PLATAFORMA DEL CASCO MEDIEVAL PARA LA CONCILIACIÓN DEL OCIO Y EL DESCANSO VECINAL.**

**HITZAURREA**

*“Erdi Aroko Hiriguneko Plataforma, Aisialdia eta Bizilagunen Atsedena Bateragarri Egiteko”* (aurrerantzean “Erdi Aroko Hiriguneko Plataforma”) Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hirigunean diharduten zenbait auzo-elkarteren ekimenez sortutako herritarren kolektibo bat da, eta haren helburua da Gasteizko Udalari helaraztea Erdi Aroko Hirigunean dauden edo diharduten hainbat kolektiboren hausnarketa eta proposamenak

Plataformaren lehenengo bilera 2016ko otsailaren 22an egin zen, eta harrezkero lau aldiz bildu da. Azkeneko bilera 2016ko maiatzaren 16an egin zen, eta honako konklusioak atera ziren:

**EZTABAIDAREN LABURPENA**

- Bilera hasieran, EHU/UPVrekin loturiko ingeniaritza-enpresa batek, eurek diseinatu duten aparailu baten aurkezpena egin digu. Gailu horrek sonometro baten ezaugarriak ditu, baina, aldi berean, giroko zarata-maila jakin bat gainditzen denean, ohartarazi egiten du. Koloreen bitartez, giroan dagoen zarata mailari buruzko informazioa ematen du, semaforo baten modura, eta, alde aurretik ezarritako soinu-muga gainditzen denean, argien bidez edota ahotsen bidez jendea ohartarazi dezake. Aurkezpena enpresaren beraren ekimenez egin da, internet bidez izan baitute plataforma honen jardunaren berri. Gailu honekin probako esperientzia bat egitea planteatu da, baina uste dugu esperientzia hau eraginkorragoa izango litzatekeela joan-etorri zabalagoko kanpaina baten barnean joanez gero.
- Sonometroei buruzko kontuari berrekin diogu ondoren, eta batik bat Erdi Aroko hirigunean aisialdiak sortzen duen zaratari buruzko datuak jaso beharri. Udaleko teknikariek diote sistemaren kostua handia dela, eta arazoa lehendik ere ezagun dela. Hala ere, beste kide batzuek agerian jartzen dute, lehenik, zarataren mapa sortzeko jasotzen diren datuak, batez ere trafikoak eta bestelako jarduerak sortzen dituztenak direla, baina ez gaueko aisialdiak eragindako jende-metaketak sortzen dituenak. Alde horretatik, datuak jasotzeko kokaguneak ez dira berdinak, eta aldian-aldian kokaguneok aldatuz joan liteke. Soinu-iturri hauei buruzko daturik ez badugu, ezinezkoa izango zaigu etorkizunean arazoaren bilakaera zein izan den jakitea. Horregatik, plataformak berretsi egiten du sonometroak ezartzeko beharra, baina zehazki gaueko zein eguneko aisialdiak sortzen dituen zaratak neurtzeko, bai eta alboko bestelako jarduerak ere (kale-garbiketak, etab.), Erdi Aroko erdiguneko zenbait puntutan batik bat.
- Halaber, aipamen egin zaio Gasteizko udalerriko Soinu-Giroa Hobetzeko ekintza Planari (2013-2018). Plan honen oinarrian zeuden 1998az geroztik Vitoria-Gasteizen egin diren afekzio akustikoen hainbat analisi eta, nahiz eta batik bat bide-trafikoak, trenbide-trafikoak eta aireportuak, eta bestelako industria-jarduerak eragiten dituzten zaratak kontuan hartzen zituen, gogoan zuen baita ere gaueko aisialdiko jarduerak sortzen duten zarata. Esate

baterako, “3. Lan-ildoa” zeritzonean, zenbait ekintza planteatzen zituen gaueko aisialdiari begirako hobekuntza-neurriekin.

- Hala, agerian jarri da azken urteotan, jarduera-ildo honi dagokionez behintzat, plana ez dela garatu, eta ez direla ekintzak gauzatu, ez eta adierazleak ebaluatu ere.
- Plataformatik sustatu nahi diren jardueri dagokienez, aurreko bileran plataformatik bertatik sortuko zen kanpaina bat abiatzeko aukera aztertu zen, baina oraingoan egokiago deritzogu proiektu zabalago, handinahiagoa gauzatzeari, gai honetako alde guztiak batuko dituen, bizilagun izan nahiz ostalari, merkatar... , bai eta udala bera ere eta, arazoa EAEko hiru hiriburu eta beste hiri askotan ere gertatzen denez, Eusko Jaurlaritza bera inplikatu beharra planteatzen da. Helburua litzateke erakundeek nahiz herritarrek bere egingo duten proiektu bateratu batean lan egitea, eragindako kolektibo guztiek parte har dezaten (auzotarrek, ostalariek, merkatariek, Udaltzaingoa,...). Norabide horretan pausuak ematea erabaki dugu.
- Edozein ekimen publiko nahiz pribatuk finantzaketa behar du nahitaez. Alde horretatik, egiaztatu dugu 2016ko aurrekontuan ez dagoela partida bat bera ere gaueko aisialdiak sorrarazten dituen zarata eta enbarazuei buruz sentsibilizatzeko. Plataformaren aburuz, aurrera egiteko ezinbestekoa da udalak helburu horretarako partida bat behintzat izatea.

## **KONKLUSIOAK**

1.- “Erdi Aroko Hiriguneko Plataformak” Vitoria-Gasteizko Udalarari eskatzen dio berreskura dezala “Gasteizko udalerriko Soinu-Giroa Hobetzeko ekintza Plana (2013-2018)”, gaueko aisialdiari buruz bertan aipatzen diren jarraibideak garatuz, jarduera berriak planteatuz eta azken burura eramanez. Halaber, zehatz ditzala adierazle egokiak, etorkizunean lortutako helburuak ebaluatu ahal izateko. Horretarako, ezinbestekoa deritzogu sonometroen sare bat ezartzeari, Erdi Aroko hirigunearan aisialdiko jarduerak hain justu sortzen dituzten zarata eta bibrazioei buruzko informazio zehatza eman diezaguten, zarata hauen nondik norakoak, hedapena, ordu-banaketa, etab. ezagut dezagun.

2.- Nahikoa den aurrekontu-partida bat onar dadila, gaueko aisialdiaren zaratari buruzko sentsibilizazio-kanpaina bat abian jarri ahal izateko, tartean diren gizarte-kolektibo eta -eragileekin elkarlanean.

Bilkura honetan 18 lagunek parte hartu zuten, honako erakunde hauen ordezkari:

- Merkataritza sektorearen ordezkariak (“Gasteiz On”, “Tribal Area”, diseinu grafikoko enpresa bat)
- Ostalaritza sektoreko ordezkariak
- Auzo-elkarteetako ordezkariak (“Gasteiz Txiki”, Eskola kaleko bizilagunak).
- Gaia elkarteak
- Kaleko hezitzaileak
- Ingurumen Saila
- Udaltzaingoa
- Sindikoaren bulegoa